

## GOBERNU BATZARRA

2014. 01. 10

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hamarrean, goizeko 10:00etan
<b>Ibai Iriarte San Vicente</b>	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Lore Agirre Zipitria</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Asier de los Rios Soraluze</b>	2.-Administrazio baldintza partikularren agiria, honako kontratazioa hau egiteko prozedura negoziatu publizitate dunaren bidez: Hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea (Iturgintza, elektrizitate eta muntaketa lanak barne) arropa garbitegia, sukaldeak eta armairuak Euskal Herria Plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegietan.
<b>Rosa M. Urkola Irigoien</b>	
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren faktura.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.- lurramendi egoitza: Abenduko kuota.
<b>Amaia Olaetxea Amonarriz</b>	5.-2013/1805 Alkate Dekretuaren kontu ematea.
	6.-Tolosako Amaiur Plazako haur parkea estaltzeko aurrekontuaren onarpena.
	7.- 38/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2013ko abenduaren 27an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.- Administrazio baldintza partikularren agiria, honako kontratazioa hau egiteko prozedura negoziatu publizitate dunaren bidez: Hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea (Iturgintza, elektrizitate eta muntaketa lanak barne) arropa garbitegia, sukaldeak eta armairuak Euskal Herria Plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegietan.

Aurkeztu da administrazio baldintza partikularren agiria eta espedientea honako kontratazioa hau egiteko prozedura negoziatu publizitadedunaren bidez: "Hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea (Iturgintza, elektrizitate eta muntaketa lanak barne) arropa garbitegia, sukaldeak eta armairuak Euskal Herria Plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegietan".

Hortaz, Gobernu Batzar honek, Hirigintza batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorritik, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Espedientea onartzea prozedura negoziatu bidez eta publizitatearekin honako kontratu hau egiteko: "Hornitzea, instalatzea eta martxan jartzea (iturgintza, elektrizitate eta muntaketa lanak barne) arropa garbitegia, sukaldeak eta armairuak Euskal Herria Plazako 1-B eraikineko 25 zuzkidura bizitegietan". Litzitazio tipo hau du: 90.000,00 euro gehi BEZa.

**BIGARRENA**.- 90.000,00 euroko (gehi BEZa) gastua baliatzea, 2014 kreditu konpromisoaren kargura.

**HIRUGARRENA**.- Onartzea baldintza administratibo partikularren plegua, aurreko puntuko kontratazioa prozedura negoziatu bidez eta publizitatearekin egiteko.

**LAUGARRENA**.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea kontratatzailearen profilean eta dagozkion gonbidapenak egitea.

### **3.- Etxez-Etxeko zerbitzua. Ilarkiren factura.**

Ilarki Elkargoari 2013ko abenduaren 26an etxez etxeko zerbitzuaren abenduko faktura onartu zitzaion 2013/1799 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez. Fakturaren kopurua 66.935,59 €-koa zen. Gobernu Batzarra jakinaren gainean geratu da.

### **4.- Iurramendi egoitza: Abenduko kuota.**

Iurramendi egoitzak abenduko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Iurramendi egoitzari ordaintzea abenduko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 23.967,88 €, honela banatuta:

- Autonomoen kostua: 2.730,17 €

- Elbarrien defizita: 21.237,71 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari eta lurreamendi Egoitzako Zuzendariari.

#### **5.- 2013/1805 Alkate Dekretuaren kontu ematea.**

Askabide Klinika, S.L., enpresak, M.I.S.M.-i emandako zerbitzuengatik, 550€-ko faktura aurkeztu du. Beraz, 2013/1805 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren bidez ordainketa egitea erabaki zen. Gobernu Batzarrak berbaieztatu egin du dekretuaren onarpena.

#### **6.- Tolosako Amaiur Plazako haur parkea estaltzeko aurrekontuaren onarpena.**

Azaroaren 19ko 40/2013 Foru Dekretuz, tokiko ekonomiak dinamizatzeko eta tokiko inbertsioak bultzatzeko Plana garatzearren Gipuzkoako udalei laguntzeko programa kudeatzeko baldintzak onartu ziren.

Foru Dekretua 2013ko azaroaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 223 zk.an, argitaratu ondoren, Tolosako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiko sarrera erregistroan abenduaren 11ko datarekin, programan sartzeko erabakia aurkeztu zuen, jarraian aipatzen diren proiektuen finantzazioa eskatuz:

**1.- Amaiur plazako haur parkea estaltzea eta zoru eta haur jolasak konpontzea: 110.000 €**

**2.- Bedaio landa auzoan aparkaleku berri bat egitea: 60.000€**

Diputatu nagusiak, 2013ko abenduaren 13an, Tolosako udalari 123.627,00 €-tako diru laguntza ematea ebatzi zuen aurkeztutako proiektuak finantzatzeko.

Amaiur plazako haur parkea estaltzeko proiektuan, estalpearen kontratazioak urgentzia du, bi arrazoiengatik nagusiki: alde batetik, haur parkearen erabilera negu aldean delako txikiena eta inauteriak baino lehen bukatu nahi direlako obrak, eta, bestetik, estalpea bera egin eta muntatzeko epea seitik zortzi astetako delako.

Arrazoi hauengatik, lan hauen kontratazioa martxan jarri beharko litzateke ahalik eta denbora txikienean.

Arquitectura Textil, S.L., enpresari dagokion aurrekontua (7.755/2 zenbakiduna) eskatu ondoren, 350 m<sup>2</sup> -ko estalpe bat eraikitzeko 49.852,00€-tako bat jaso zen, BEZ kanpo.

Kopuru horietan egin beharreko lana kontratu txikia kontsideratu daiteke eta, beraz, zuzenean esleitu.

Hortaz, aurrekontu hau azterturik eta Udal Arkitektoak egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Arquitectura Textil, S.L., enpresaren 2013ko abenduaren 9ko 7.755/2 zenbakidun aurrekontua, Amaiur plazako estalpea eraikitzeko. Zenbatekoa: 49.852 € (BEZ kanpo).

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Arquitectura Textil, S.L., enpresari, Kontuhartzaitzari eta Obra departamentuari.

### **7.- 38/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak 38/2013 faktura zerrenda aurkeztu du; 361.823,96 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- 38/2013 faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:**

### **Etxola moduko 4 konpostadore berri egiteko lanen esleipen proposamena.-**

Bi mila eta hamahirugarren urtean 4 konpost gune jarri ziren Tolosan. Hauetako 2, plastikozko ontziekin, eta beste bi, egurrezko etxolekin. Esperientziak erakutsi du etxola moduko konpostagailuek hobeto funtzionatzen dutela. Konposta azkarrago egiten da eta konposta erosoago lekuz aldatzen da. Sistema honen abantailarik handiena hau da; espazio txikiagoan familia gehiagok hartu dezaketeela parte.

Bi mila eta hamalagarren urtean, beste 4 gune egitea aurreikusten da, denak etxola modukoak.

Horretarako hiru aroztegi eskatu zaie aurrekontua, horrelako etxolak egiten esperientzia dutelako: Carpinteria Garciandia, Protec, S.L., eta Arramele Aroztegia.

Beraz, Ingurumen teknikariak honi buruz egindako txostenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Arramele Aroztegiari etxola moduko lau konpostadore berri egiteko lana esleitzea, 12.913€-ko prezioan (BEZa barne).

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumen departamentuari eta interesatuei.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**